

Donostia, 2017ko urriaren 20a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

URREZKO MASKORRA SARIARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hil honetako Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Urrezko Maskorra sariari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Iazko azaroan, Donostiako Udalak torero bati eman zion 2016ko Kulturako garaikurra; sari berezia zen hori, 2016. urtean hiria Europako Kultur Hiriburua izan baitzen.

Joan den urriaren 3an, lehen alkateorde Ernesto Gasco jaunak zezenketa-lagunarteek torero bati eman zioten Urrezko Maskorraren entregatzean parte hartu zuen.

Sariketa hori erakunde pribatuek antolatzen dutenez, eta kontuan hartuta zer-nolako gizarte-erantzuna dagoen gaur egun hirian zezenketak direla eta, zinegotziak sari horren entregatzean parte hartu izana gaitzetsi genuen.

Gure interpelazioari emandako erantzuna izan zen hiriaren izenak oihartzuna izatea dela helburua, eta helburu horrekin bat egiten badugu ere, ez gatoz bat baliatzen diren bitartekoekin. Donostiak ez luke oihartzuna bilatu beharko animaliak torturatzea sustatuta, baizik eta bere kultura, artea, gastronomia eta ospea ematen dioten beste hainbat balio hedatuz.

Halaber, adierazi zuen beti izan dela udal ordezkarien parte hartzea. Berriro esan nahi dugu gai horrek eztabaida eragiten duela herritarren artean, eta herritarrek kontsulta baten bidez beren

iritzia adierazi ezin duten bitartean, udal ordezkariak ez lioketela saririk eman beharko jarduera horrekin lotutako ezein pertsonari, zenbait udal taldek hainbatetan eskatu duten bezala.

Eta berriro ere azpimarratu nahi dugu sari horren bidez hiriaren ospea sustatu nahi bada, badaukagula turismo-arloko gizatalde bat, zeregin ezin hobea egiten duena sustapenean, bere profesionaleri esker, eta ez direla beharrezkoak animaliak torturatzen direneko ikuskizunak.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari uzteko zezenketekin zerikusia duten sariak emateari.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.